



## BBK VP 2020 programa

### DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Nor gara
2. Programaren Helburuak
3. Nori zuzendua dago?
4. Zelan parte hartu programan?
5. Programaren faseak eta edukiak
6. Batzorde Estrategikoa, Hautaketa-prozesua eta Finantzaketa
7. Hautatutako enpresen konpromisoak Programarekin
8. Programaren konpromisoak hautatutako enpresekin
9. Programaren balioa eta kostua
10. Konfidentziasuna eta jabetza intelektualeko eskubideak
11. Lege-alderdiak
12. Kontaktua



## 1. NOR GARA

BBK-k **mende bat baino gehiago** darama Bizkaiko **ekonomiaren garapenari eta gizartearen kohesioari laguntzen**. Gure Gizarte Ekintzak talentua eta ekintzailetza sustatzeko baliabideak ditu, eta urtero milaka pertsonak parte hartzen du eta etekina ateratzen diete enpresak eratu eta sortzera bideratutako BBKren programei.

BBK Venture Philanthropy programak (aurrerantzean "BBK VP") **Bizkaia lurralde ekintzaile** bihurtzeko BBK-k duen erronka handiari erantzun gura dio. BBKtik beharreen ari gara **Gizarte Ekintzailetza eta Inpaktuko Inbertsio Ekosistema** garatzeko Bizkaian, **Garapen Jasangarriko Helburuetan** oinarrituta.

**Nazio Batuen** arabera, urtean 2,5 bilioi dolar behar dira munduan, Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko behar diren 3,9 bilioi dolarretara iristeko.

Beharizan horri aurre egiteko, erantzun ausart bat sortu da mundu osoan, gure gizartearen arazo sozial eta ingurumen-arazoak konpontzeko tresna berritzaileak erabiltzen dituen: **gizarte-berrikuntza eta ekintzaile, enpresa eta inpaktuko inbertitzaileak**, sistema ekonomikoa ekonomia jasangarriago baterantz eraldatzea bilatzen dutenak. Orain arte, inbertsioak **errentagarritasuna/arriskua binomio** pean egin dira. Inpaktuko inbertsioak ikuspegi berri bat proposatzen du, non inbertsio-erabakiak **errentagarritasuna/arriskua/inpaktua** trinomio pean hartzen diren.

BBK-k aktiboki lan edo behar egiten du **errentagarritasuna/arriskua/inpaktua trinomio horrekin inbertitzaile izatea** ardatz hartuta; horretarako, estrategia zabal bat diseinatu dugu, gizarte-berrikuntzatik eta herritarrak kontzientziazetik gizarte-ekintzailetzako programak garatzeraino doana. **BBK-k diseinatutako ekintzailearen bidaiak** lau sektore nagusi ditu, eta horietan arreta berezia jarriko da prozesuaren funtsezko uneak eta horien beharizanak diseinatzerakoan: INSPIRATZEA, BULTZATZEA, AZELERATZEA eta INBERTITZEA. Programa hau AZELERATZEA sektorean kokatzen da eta **Ship2B**-ren laguntza du, Funcas rankingaren arabera Espainiako bigarren azeleratzaile onena dena.

## 2. PROGRAMAREN HELBURUAK

BBK VPren helburua **Bizkaian gizarte-eragin edo inpaktua duten startup-ei eta barne-ekintzailetzako proiektuei laguntzea da, haien abiarazte eta hazkundera AZELERATU edo biziarteko**. Errentagarritasun bikoitza, bai ekonomikoa eta bai soziala/ingurumenekoa, bilatzen duten ekintzaileekin eta barne-ekintzaileekin behar egiten dugu, eta horiei laguntza ematen diegu beren funtsezko metrika ekonomiko eta sozialak lor ditzaten.

"BBK VP programan" parte hartzen duten proiektuak **azelerazio-programa pertsonalizatu** batez baliatu ahal izango dira, **Ship2B**rekin batera garatua, baita programa horretarako **finantzaketa-funts** espezifiko batez ere, **BBK-k 100.000 €rekin hornitua**.

## 3. NORI ZUZENDUA DAGO?

Bizkaiko lurraldean gizartean eta ingurumenean eragina duten enpresek (kapital sozietateak edo kooperatiba sozietateak) parte har dezakete BBK VPn, baldin eta:

- Negozio-eredu errentagarria edo autosostengarria badute.
- Ideia berritzaile batean oinarritzen badira.
- Eragin edo inpaktu handia lortu eta eskalagarritasunaren bidez biderkatu gura badute.
- Startup-ek edo gizarte-erakundeetako barne-ekintzaileek bultzatutakoak badira.

Proiektuko parte-hartzaileek 18 urtetik gorakoak izan behar dute.



Hautagaitza aurkezteko, enpresek eratuta egon beharko dute, edo 2020ko irailaren 30a baino lehen eratuta eta dagokion erregistro publikoan inskribatuta egoteko konpromisoa hartu beharko dute, programaren 2. FASErako ebaluazioan kontuan har daitezten.

#### 4. ZELAN PARTE HARTU PROGRAMAN?

BBK VP programan parte hartu gura duten enpresek BBK webgunearen ([www.bbk.eus/bbkvp](http://www.bbk.eus/bbkvp)) bidez bete beharko dute beren eskabidea.

Eskabideak aurkezteko deialdia 2020ko ekainaren 8ko 09:00etatik 2020ko uztailaren 12ko 23:59ra bitartean egongo da zabalik. Ez da onartuko epe horretatik kanpo aurkezten den proiekturik.

#### 5. PROGRAMAREN FASEAK ETA EDUKIAK

BBK VP programa batez ere 2 fasetan zatitzen da:

##### 1. FASEA. Innovation Bootcamp (2020ko iraila)

Ahalmen handieneko 10 enpresak hautatuko dira, Innovation Bootcamp-era sartzeko aukera izango dutenak; bertan, balio-proposamenak zehaztu eta hobetu ahal izango dituzte bi egunez, funtsezko gaiei buruzko prestakuntza eta aholkularitza jaso ahal izango dute, eta beste gizarte-ekintzaile batzuekin ere konektatu ahal izango dira hasierako faseetan.

1. FASEko data nagusiak:

- **2020ko irailaren 4tik 7ra:** jakinarazpena 10 aurre-hautatuei
- **2020ko irailaren 17 eta 18an:** Innovation Bootcamp (2 egun)
- **2020ko irailaren 30ean:** dokumentazioa entregatzea
- **2020ko urriaren 2an:** 2. FASErako hautaketa-batzordea

*Oharra: aurrez aurreko jarduerak Bilbon izango dira, edo, bestela, online, ezinbesteko arrazoiengatik.*

##### 2. FASEA. Azelerazioa (2020ko urria - 2021eko urtarrila)

4 enpresa finalistek **azelerazio-prozesu pertsonalizatua jasoko dute 4 hilabetez**; prozesu hori amaitzean, programaren **funts berezi** bat izango dute eskura, BBK-k 100.000 euroz hornitua, baita **ekintzailetzari laguntzeko BBKren ekosistema** ere.

Gainera, bigarren fase honetan, lagundutako enpresen eskura jarriko ditu BBK VPeke bere proiektuak indartzeko **erabilgarri dauden baliabide guztiak** (banakako laguntza, prestakuntza, 400 aholkulari eta aditu baino gehiagoz osatutako sarea, lankidetzak aztertzeko enpresa handien sarea, eta inpaktuko inbertitzaileen sarea).

Lagundutako proiektuek beren eragina maximizatzeko eta Ship2b-ren eragin zigilua lortzeko lan egingo dute, eta programako ekitaldietan parte hartzeko aukera izango dute, horrela komunitate osoarekin harremanetan jartzeko, aliantzak egiteko, finantzaketa lortzeko, etab.

2. FASEko data nagusiak:

- **2020ko urriaren 5ean:** 4 hautatuei jakinaraztea
- **2020ko urriaren 26-30ean:** Impact Business Bootcamp (5 egun)
- **2020ko azaroaren 23 eta 24an:** presentziatzeko bi egun



- **2021eko urtarrilean:** Inpaktu Batzordea, Venture Philanthropy Batzordea eta Demo Day  
*Oharra: aurrez aurreko jarduerak Bilbon egingo dira, edo, bestela, online, ezinbesteko arrazoiengatik.*

2. FASErako hautatuak **ez** diren enpresek Impact Business Bootcamp-en bertsio murriztuan, 2 egunekoan, parte hartzeko aukera izango dute **urriaren 19 eta 20an**.

## 6. BATZORDE ESTRATEGIKOA, HAUTAKETA-PROZESUA ETA FINANTZAKETA

Proiektuen ebaluazioa eta hautaketa BBK-ko eta Ship2bko kideek osatutako Batzorde Estrategiko batek egingo du.

### Hautaketa-prozesua – 1. Fasea

Deialdia itxi ondoren, Batzorde Estrategikoak 10 proiektu hautatuko ditu gehienez, eta hautatutakoak irailaren 4tik 7ra bitartean jakinaraziko dira.

Hautaketa-irizpideak:

- 1) Balizko gizarte-inpaktua
- 2) Negozio-eredua
- 3) Berrikuntza
- 4) Eskalagarritasuna/Erreplikagarritasuna
- 5) Lantaldea
- 6) Programaren ekarpena

### Hautaketa Prozesua – 2. Fasea eta Finantzaketa

Batzorde Estrategikoaren ardura izango da, halaber, enpresa parte-hartzaile bakoitzaren aurrerapen eta konpromisoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta programaren lehen fasearen amaieran, 10 proiektuetatik 4 aukeratuko ditu hurrengo fasera pasatzeko.

Parte hartzen duten enpresek entregagai bat aurkeztu beharko dute, Batzorde Estrategikoak uler dezan zer bilakaera izan duen proiektuak 1. FASEAN, eta zer beharrizan planteatzen diren bere ekintza-plana definitzeko (ondo azaldu zergatik jarraitu gura duten BBK VP programan). Entregagai horiekin, Batzorde Estrategikoak 4 proiektu eta lantalde onenak hautatuko ditu, eta hurrengo fasera (2. FASEA) igaroko dira.

**Urriaren 4 finalistak jakinaraziko dira**, eta horiek beren proiektuen garapenean sakondu ahal izango dute, azelerazio-prozesu pertsonalizatu bati esker; prozesu horri esker, beren erronka/beharrizan nagusiak identifikatu ahal izango dituzte, eta erreferentziazko aditu, aholkulari eta interes taldeen babesari eta beraiekiko konexioari esker landu eta finantzaketa lortu ahal izango dute.

Era berean, Batzorde Estrategiko horrek erabakiko du 4 enpresa finalistaren artean **banatuko den finantzaketa**. BBK-k konprometitutako laguntza proiektu finalistaren artean banatzeko eskubidea du, modu proportzionalik gabe, eta zenbateko zehatza aldatu egin daiteke horien balorazio erlatiboaren arabera. Nolanahi ere, lau proiektuei emandako laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko 100.000 euroko kopurua.



Garrantzitsua: azken fasera iristeak ez du esan gura finantzaketa jasoko denik: hori batzordeak erabakiko du, proiektu bakoitzaren bilakaeran eta aholkularien eta programa garatzeko talde teknikoaren iritzian oinarrituta.

Proiekturen batek esperotako helburuak lortzen ez baditu, dedikaziorik ez duelako eta/edo konpromisoak betetzen ez dituelako, enpresa hori azelerazio-prozesutik kanpo uztea erabaki dezake batzorde estrategikoak.

## 7. HAUTATUTAKO ENPRESEN KONPROMISOAK PROGRAMAREKIN

BBK VP programan parte hartzeak eta laguntza- eta tutoretza-eskubide guztiak lortzeak parte-hartzaileen konpromiso zorrotza eskatzen du:

1. **Proiekturako dedikazioa:** programan sartzeko unean eta programak irauten duen bitartean proiektuko taldekide baten dedikazio osoa gutxienez.
2. **Bertaratzeko konpromisoa:** programaren barruan eskainitako aurrez aurreko eta online saioetan eta tailerretan % 100eko bertaratzea (ezinbesteko arazo baten ondorioz justifikatuta dagoenean izan ezik), baita eskainitako jarraipen-jardueretan ere, prozesu osoan zehar gutxienez pertsona bat egongo dela ziurtatuz. Baita kolaboratzaileekiko bileretara eta programarekin lotutako aurkezpen publikoetara joateko konpromisoa ere, beharrezkoa denean.
3. **Adostutako ekintza-plana inplementatzea eta identifikatutako funtsezko metrikak lortzeari lehentasuna ematea.**
4. **Sareko lana:** Programan parte hartzen duten enpresen arteko ezagutza-trukea eta lankidetzat sustatuko ditu programak; beraz, parte-hartzaileek baimena ematen diote BBK VPri harremanetarako datuak partekatzeko, bai gainerako parte-hartzaileekin eta bai programan kolaboratzen duten pertsona eta erakundeekin. Programak eskubidea izango du hautatutako enpresei noizean behingo inplikazioa eskatzeko, ahal den neurrian, programaren etorkizuneko edizioetan, BBK VP programaren arrakasta-kasu gisa.
5. **Programa osteko *alumni* jarraipena:** ekintza-planaren bilakaeraz argibideak ematea eta lortutako mugarren berri ematea programako lantaldeari.

## 8. PROGRAMAREN KONPROMISOAK HAUTATUTAKO ENPRESEKIN

BBK VP Programak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Hautatutako proiektu bakoitzerako **koordinatzaile bat** esleitzea.
2. Proiektuaren egoera **ebalutzeko diagnostikoa** egitea, lehentasunak (lortu beharreko metrikak) identifikatzeko eta jarduketa-plan bat ezartzeko.
3. Proiektuen eta ekintzaileen hazkunderako **tresnak** ematea.
4. Ekintzaileak BBK VP sareko mentore edo aholkulariekin **konektatzea**.
5. **Proiektuak** BBK VP **laguntzaileen aurrean aurkeztea**, balizko aliantza estrategikoak bilatzeko.



6. BBK VPk antolatutako **ekintzailtza ekosistema ekitaldietara** eta beste batzuetara gonbidatzea.
7. Parte hartzen duten proiektuei **zabalkundea ematea**.
8. **BBKren 100.000€ko finantzaketa-funtsaz** baliatzeko aukera ebaluatzea.
9. BBK VPk beraien eskura jar ditzakeen **funts gehigarriak/inbertsio-bideak** lortzeko aukera ebaluatzea.

## 9. PROGRAMAREN BALIOA ETA KOSTUA

Azelerazio programaren balioa **30.000 eurokoa da proiektu bakoitzeko, eta % 100 BBK-k finantzatzen du**; beraz, parte hartzen duten taldeek ez dute kosturik ordaindu beharko parte hartzeagatik.

Horrez gain, BBK-k 100.000 euroko finantzaketa funts zehatza jartzen du.

Garrantzitsua: taldeek beren gain hartu beharko dituzte programan parte hartzeak dakartzan kostuak, hala nola garraioa, ostatua eta dietak, baldin eta egindako jarduerak joan-etorriak eskatzen badituzte. Hasiera batean, jarduera gehienak Bilbon izango dira.

## 10. KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

BBK VP programara aurkezten diren proiektuen edukia, baita ematen den edozein motatako dokumentazio eta informazioa ere, konfidentziala, isilpekoa eta mugatua izango da, eta BBK VPk eta Batzorde Estrategikoko kideek horrela tratatuko dituzte. Parte hartzen duten startupek, arau orokor gisa, onartzen dute Batzorde Estrategikoak proiektuaren oinarriko datuak erabiltzea Oinarri hauetan jasotako ebaluazio- eta hautaketa-prozesuetan.

Hautatutako proiektuek konfidentzialtasuna gorde nahi badute, baita programan parte hartzeari buruz ere, berariaz jakinarazi beharko dute Oinarriak eta beste lege-dokumentu batzuk onartzeko unean. Konfidentzialtasun hori I. Faseko parte-hartzeari buruz izango da; ez, ordea, II. Fasean edo ondorengoetan proiektua abian jartzerakoan.

Startup hautatuak bermatu behar dute programara beren borondatez ekarritako lanek eta edukiek (laburpenak edo aurkezpenak barne) ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen edo, hala badagokio, programa honetan parte hartzeko behar diren baimen guztiak dituztela; ez direla ez iraingarriak, ez laidogarriak; ez dutela indarkeria eta arrazismoa bultzatzen; eta ez dituztela urratzen ez oinarriko eskubideak, ez aplikagarria den araudiak aitortutako askatasun publikoak, ez haurren eta gazteen babesari buruzkoak; ez direla pertsona fisikoen intimitate pertsonal edo familiarrean sartzen, ezta hirugarrenen ohorerako eskubidea edo komunikazioen sekretua urratzen ere; eta ez direla indarrean dagoen araudiaren aurkakoak ere. Era berean, aurkeztutako proiektuek hizkuntzaren eta irudi-tratamenduaren erabilera ez-sexista bermatuko dute.

Era berean, parte hartzen duen startup bakoitzak baimena ematen dio BBK VPri bere izena eta irudia erabiltzeko programarekin lotutako publizitate-materialean, Internet barne, inolako ordainik jaso barik, betiere II. Fasetik aurrera.

Programaren esparruan egindako berrikuntza, patente edo garapen teknologikoen jabetza intelektuala talde sustatzaileak eratutako sozietatearena izango da.



## 11. LEGE-ALDERDIAK

**Lege Oinarriak onartzea.** Oinarri hauen helburua BBK VP programan parte hartzeko arauak ezartzea da. Programaren deialdian parte hartzeak esan gura du Oinarri hauek onartzen direla, salbuespenik eta baldintzarik gabe, baita BBK-k eta/edo Programa hau Ebaluatu eta Koordinatzeko Batzordeak horri buruz eman dezake(t)en edozein interpretazio-ebazpen ere.

2. FASerako hautatutako enpresek kontratu bat sinatuko dute BBKrekin, Programarekiko harreman juridikoaren baldintzak formalizatzeko. BBK-k kontratua suntsiarazi ahal izango du enpresek programarekin hartutako konpromisoak eta dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu.

**Datu pertsonalak babestea.** Emandako datu pertsonalak, baita BBK Venture Philanthropy ekimenean sartzeko eskaerarekin baterako dokumentazioan daudenak eta hau izapidetu bitartean sortzen direnak ere, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria-Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren eta BBK Fundazioaren ardurapeko datu-base batean sartuko dira, bi erakundeak direlarik tratamenduaren arduradunak, IFK-zk.ak G-48412720 eta G-48644371 dituztenak hurrenez hurren, eta helbidea: Kale Nagusia, 19-21, 48001 Bilbo (Bizkaia); datu-basean sartuko dira zure hautagaitza aztertu, ebaluatu eta tramitatzeko, baita, hala badagokio, Programan sartzea burutzeko beharrezko zuzemenak egin eta bere jarraipen eta balorazioa egiteko ere. Tratamendua legezko bihurtzen duen oinarri juridikoa kontratu-neurriak aplikatzeko tratamenduaren premia edo beharrezana da.

Horretarako, zuk berriaz onartzen duzu hautagaitzak aztertze prozesuan parte hartzen duten beste erakunde batzuei zure datuak jakinaraztea.

Kontratu-harremanak irauten duen bitartean gordeko dira datuak eta, gero, kontratuaren ondorioz sor litezkeen erantzunbeharrei erantzuteko ere bai. Dena den, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu posta elektronikoz [protecciondedatos@bbk.eus](mailto:protecciondedatos@bbk.eus) helbidera idatzita edo ohiko postaren bidez goian adierazitako helbidera, zeure burua zehazki beka-eskatzaile gisa identifikatuz, NAN edo baliokide den agiriaren fotokopiarekin batera, eta eskaera zehaztuz. Halaber, argibide gehiago nahi baduzu edo datu pertsonalak babesteko eskubidea urratu egin zaizula uste baduzu, erreklamazio bat jarri ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ([ww.aepd.es](http://www.aepd.es)) aurrean.

**Erantzukizunetik salbuestea.** Talde sustatzailea da sozietatearen administrazioagatiko erantzule bakarra, eta, bereziki, beren proiektuen bidez hirugarrenen eskubideei eragindako edo eragin diezazkiekeen arau-hauste eta kalteengatik, eta kalte-ordaina emango die hirugarren ukitu horiei eta BBKri lege-oinarri hauetan ezarritako eta onartutako betebeharrak ez betetzeagatik sortutako kalte-galerengatik. BBK ez da atzerapenen edo hirugarrenei egotz dakizkiekeen beste edozein inguruabarren erantzule izango, parte-hartzeari edo programaren garapenari eragiten badiote. BBK-k ez du bere gain hartuko programan parte hartzeko dagoen sistemaren funtzionamenduaren aldi baterako erabilgarritasunik edo jarraitutasunik ezaren ondoriozko inolako kalte edo galerarik. BBK-k ez du bere gain erantzukizunik hartuko posta-zerbitzuetan edo telekomunikazio-sareetan izandako atzerapengatik erregistroei, datu-bidalketei edo bestelakoei dagokienez. BBK-k programa aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea izango du. BBK-k ez du bere gain erantzukizunik hartuko talde sustatzaileen datuak okerrak badira, eguneratuta ez badaude edo BBKrekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik haiekin harremanetan jartzerik ez badago.



**Legeria eta jurisdikzioa.** BBKren erabakia merkataritza-izaerakoa da, eta jurisdikzio-eskumena epaitegi eta auzitegi zibilena da. Enpresa-proiektuen ordezkariak, legokiekeen edozein foruri formalki uko eginez, berariaz jarriko dira Bilboko Justizia Auzitegien, honetarako eskudun direnen, mende, programa honen interpretazioaren edo betearazpenaren inguruan zuzenean edo zeharka sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio ebazteko.

## 12. KONTAKTUA

Edozein zalantza izanez gero, edo programari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, BBK VP programaren webgunera jo daiteke ([www.bbk.eus/bbkvp](http://www.bbk.eus/bbkvp)) edo mezu elektronikoko bat bidali [bbkvp@bbk.eus](mailto:bbkvp@bbk.eus) helbidera.